

Jose Luis Lizundia Askondo, Euskaltzaindiaren Idazkari-ordea eta bere Toponomia Batzordeko Idazkari denak, ondoko DIKTAMEN hau ematen du:

Elkargo akademiko honek prestatutako eta onartutako Euskal Herriko Udalen Izendegian, bere 63 zenbakiaz datorrena, eta orain arte Administrazioaren bertsio ofizialean: “Arbacegui y Guerricaiz” deitzen dena, euskal bertsio ofizial akademikoan: **MUNITIBAR** da.

Bestalde, **MUNITIBAR** elizatearen hirigunea tokiz aldatzetik dator, zeren eta bere enplazamendu edo kokagune zaharra *Arbatzegi* bai zen, hain zuzen gaur *Arbatzei* deitzen dena. Gertatu dena da, euskaldunak kokagunea aldatukeran, herriaren izena ere aldatu zutela, baina ez zutela aldaketa berbera egin historikoki instituzioek.

Bestalde, *Gerrikaitz* hiriaren, alegia Bizkai eta euskal mendebalde guztiko forman, uriaren izena da, nahiz eta kasu honetan ere, *Monditibar*, concejo *Monditibar*, villa de *Monditibar*, iglesia de la Villanueva de *Monditibar* de *Guerricaiz*, etab. agertu. Beraz, orduko *Monditibar* ibarrean, gaur *Munitibar* deitzen denekoan kokatzen zen *Gerrikaitz* uria ere.

Guzti horregatik eta hiru izenok *Munitibar*, *Arbatzegi* eta *Gerrikaitz*, euskal toponomastiko izanik, zilegi da Batzorde honen ustez, hiru izenak gorde nahi izatea, eta Udalak administral tramitapenari hasiera emanaz eta Euskararen Erabilpena Arauzkatzeko Oinarrizko Legearen 10. artikularen arabera legeztapen ofiziala burutzeko. Beraz, **MUNITIBAR/Arbatzegi-Gerrikaitz** izena egokia da Udal horrentzat.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen dut Bilbon mila bederatziehun eta larogeitabostgarreneko Ekainaren bostean.